

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,
ZIURTATZEN DOT:

2014ko otsailaren 10ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

12.- BERMEOKO UDALEKO IRUDI KORPORATIBODUN PAPER HORNIDURA KONTRATUA ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

2014-06 Bermeoko Udaleko irudi korporatibodun paper hornidura. Kontratu txikia esleitzea.

Argudioak

Lehenengoa: Prezioen igoerea kontutan izanik, egoki ikusi da eskaintza barriak aztertzea hornidura hau burutzeko. Ondorengo enpresei eskatu jake eskaintzea aurkezteko: GRAFICAS GAUBECA, LLONA INPRIMATEGIA, ART PRINT, AUE KOMUNIKAZIOAK, IRUDI WEB.

2013an kontsumoa 3.000,00€ ingurukoa izan da kontratu honetan. Prezio zehatza ezin da zehaztu eta banakako prezioetan eskaintzen da kontratua. Aurreikuspena 2013rako: 5.000,00€koa KPI eta BEZaren igoereagaz.

Bigarrena: 2014ko urtarrilaren 28an amaitu da epea email bidezko eskaintzea aurkezteko. Lau eskaintza jaso dira:

2014-06 ESKAINTZA AURKEZTEKO KUADROA			2014-RAKO PREZIO ESKAINTZA (2 HAMARTAR GEHIENEZ)			
ARTIKULUAK	GITXIENEOAK	2013-KO KONTSUMOAK	GAUBECA	ART PRINT	LLONA	AUE KOMUNIKAZIOAK
A4 ORRIAK	500 ORRIKO TAKOA	60	8,00	10,38	7,20	31,20
BISITA TXARTELAK	100 ALE	3	15,80	17,00	16,00	24,00
GUTUNAZALAK LEHIATILA	500 ALEKO KUTXA	11	19,30	29,95	19,00	57,60
GUTUNAZAL ZURI HANDIAK	250 ALEKO KUTXA	11	32,35	36,30	30,00	45,60
GUTUNAZAL ZURI ERTAINAK	250 ALEKO KUTXA	17	24,33	25,75	16,00	43,20
GUTUNAZAL ZURI TXIKIAK	500 ALEKO KUTXA	8	19,85	34,38	22,00	30,00
ESPEDIENTEETAKO KARPETA ZURIAK	100 ALEKO TAKOA	50	13,96	17,79	13,50	39,60
ESPEDIENTEETAKO KARPETA BERDEAK	100 ALEKO TAKOA	30	17,70	24,79	12,20	39,60
			2.896,96	3.748,54	2.508,00	7.221,60

Aurkeztutako eskaintzak hartuz, banakako prezioak 2013ko kontsumoakaz biderkatu dira, beherago ikusi daitekeen emoitzeagaz. Beraz, eskaintzarik onena LLONA INPRIMATEGIA enpresek eskaini dau.

Hirugarrena: Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartu dauen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 138.3 artikuluan xedatuta dagoz hornidura kontratu txikien mugak, hau da, 18.000,00 eurorainokoak BEZ BARIK, zuzeneko esleipen bidez gauzatu daitekezala. Xedapen hori eta gastu honen zenbatekoa kontuan izanda, legezkoa da zuzeneko esleipena egitea.

Laugarrena: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: 2014-06 hornidura kontratua, LLONA INPRIMATEGIA enpreseari esleitzea, eta gastua onartzea eta xedatzea.

Xedea: Irudi korporatibodun papera hornitzea.

Kontratu epea: 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Emoteko epea: Astebete.

Ordaintzeko epea: Ohikoa

Gastu osoa: 5.000,00€ BEZ barru.

Garraio kosturik: Ez

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2014ko otsailaren 13an.

ONETSIA
ALKATEA